

ARITZATXU HONDARTZAKO KANTINAREN ETA KOMUNEN EMAKIDA ESLEITZEKO DEIALDI BERRIAREN IRAGARKIA

Proposamenak aurkezteko epe barria 2024ko apirilaren 17tik maiatzaren 8ra arte zabalduko da.

2024ko apirilaren 10ean egindako Kontratazio-mahaiak pleguetan antzemandako errore batzuk direla eta, Kontratazio-mahaiak prozedura bertan behera uztea erabaki zuen.

2024ko apirilaren 11ko 1.584 Alkatetza Dekretuz, emakidaren Administrazio-baldintza zehatzen agiriak zuzentzea erabaki zen. 2024ko apirilaren 16an, 73 zk.ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean pleguen zuzenketak publikatu dira:

— *Administrazio-baldintza zehatzen 4. atalean (Esleipen irizpideak), honakoa ipintzea:*

«Eskainitako prezioa: $P_n = 50 \times (E_n/E_o)$.»

— *Honakoa ipintzen duen lekuan:*

«Eskainitako prezioa: $P_n = 50 \times (E_o/E_n)$.»

— *Administrazio-baldintza zehatzen 10. atalean (Eskariak aurkeztea), honakoa ipintzea:*

«Posta bulegoetan, erregelamendu bidez araututako moduan.»

— *Honakoa ipintzen duen lekuan:*

«Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.»

Eta honako paragrafo hau gehitzea: «Edozein kasutan, dokumentazioa gutunazal edo artxibo itxietan aurkeztu beharko da, eta ziurtagiri digital bidez sinatuta kontratatzailearen profileen aurkezten den kasuetan.»

— *Administrazio-baldintza zehatzen 15. ataleko B) azpiatalean (Betebehar bereziak), honakoa ipintzea:*

«Hondartzaren kudeaketarako Bermeoko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzeta-hitzarmena (2022-2024) betetzeko, administrazioak eskatzen dizkionak bete beharko ditu esleipendunak.»

— *Honakoa ipintzen duen lekuan:*

«Bermeoko Udala Bizkaiko Foru Aldundiaren Kudeaketarako Sistema Integratuan dago Aritzatxuko hondartza kudeatzeko, beraz, sistema horrek ezarritakoa bete beharko du esleipendunak. Horretarako, eskatzen diren agiriak finkatutako epeetan bete beharko ditu (fitxak, etb) eta udalaren laguntza eta argibideak eskura edukiko ditu.»

Hori dela eta, proposamena aurkezteko 15 laneguneko epe berri bat zabaltzen da, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eskaintzak aurkeztuta izan dituzten parte hartzaileek ere, proposamenak aurkeztu beharko dituzte berriro ere, 15 laneguneko epe horretan.

***Garrantzitsua: Aurreko espedientean (IDA_ERA_0124_2023) aurkeztutako proposamenak eragin gabe gelditu dira eta beharrezkoa da interesdunek proposamen berriak aurkeztea kode hau erabiliz IDA_ERA_0124_2023_1.**

Kontratazio-Mahaiko idazkaria



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010 idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

OLATZ GANBOA ELORRIAGA - 16/04/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/04/2024 10:49:23

EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0124
Data: 24/08/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F4F6D0013B7K5A4X6N1

CSV: 07E8000F4F6D0013B7K5A4X6N1

